



OÑATI
dabilen herria



OÑATIKO UDALA

ALKATE DEKRETUA

Nik, Izero Elorza Arregui Oñatiko Alkatea naizenez eta Toki Korporazioetako Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridiko Erregelamenduak ematen dizkidan ahalmenetan oinarrituz ondorengo agintzea erabaki dut:

Artikulu hauetan xedatutakoa betetzeko: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22. eta 46. artikulua; Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea; eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Erakunde Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 79., 80 eta 82. artikulua.

2021eko abenduaren 16an onartutako saioen egutegia ikusita.

Alkate-udalburua naizenez, bai eta toki-araubidea arautzen duen indarreko araudiak ematen dizkidan ahalmenak ikusita,

Erabaki dut:

Udalbatzaren ohiko bilkurarako deia egitea. Bilkura hori udal honetako Osoko Bilkuren Aretoan egin beharko da, 2022ko apirilaren 28an, 18:30etan, lehen deialdian, eta bi egun geroago eta ordu berean, bigarrenean. **Gai-zerrendako gai hauek aztertuko dira:**

1. Onartzea, hala badagokio, 2022-03-31ko ohiko osoko bilkuraren akta, (3.2022).
2. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Jose de Azpiazu musika eskola elkarte eta Oñatiko Udalaren arteko hitzarmena onartzea eta dirulaguntza izendun eta zuzena onartzea, Kultura Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko martxoaren 31an.
3. Onartzea, hala badagokio, Alkateak egindako proposamena: Europako funtsen kudeaketarako Oñatiko udalaren lurraren aurkako plana onartzea, Ogasun Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko apirilaren 12an.
4. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Araotzeko ostatuko zerbitzuen emakidaren kontratazioa espedientea onartzea eta esleipen prozesua abiaraztea, Zerbitzuak eta Landa garapen Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko apirilaren 19an.
5. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Aurrekontuen plantilla eta lanpostuen zerrendaren aldaketa, idazkaritzako administrari plazaren lanaldia, %100era igotzeko, izena 'administrarira' aldatzeko eta HAZ zerbitzura atxikitzea, Pertsonal eta barne antolakuntza Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko apirilaren 25ean.
6. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Aurrekontuen plantilla aldaketa, Kale Garbitzaile plaza berri bat sortzea, laboral finkoa, E taldea, Pertsonal eta barne antolakuntza Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko apirilaren 25ean.
7. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Haritz Sarriegi Etxebarria, Olalan guneko alokairu kontratuaren amaiera eta luzatzeko eskaera onartzea, Sozioekonomia eta Turismo Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko apirilaren 13an.

8. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Pablo Arejolaleiba Ugartek Aloña Mendi Igoerako ordezkariak egindako diru-laguntza eskaera eta diru-laguntza zuzena onartzea, Sozietonomia eta Turismo Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko apirilaren 13an.
9. Hala badagokio, presako gaiak.
10. Hala badagokio, larrialdi-mozioak.
11. 2022eko martxoaren 28tik 2022 apirilaren 22ra bitartean eman diren alkate dekretuen berri ematea, 335 zenbakitik 429 zenbakira.
12. 2022ko Toki Gobernuko Batzordeen akten berri ematea (7. Eta 8. Saioak).
13. Toki Gobernuko Batzordeak 2022ko apirilaren 7an hartutako erabakiaren berri ematea: eragozpen oharra altxatzea.
14. Galderak eta eskaerak.

Jakinarez bekie berehala Udalbatzako zinegotzi guztiei, eta ohartarazi Idazkaritzan eskura dutela gai-zerrendan jaso diren aztertu beharreko gaii buruzko dokumentazioa, eta, arrazoi justifikaturen bat dela-eta bilkurara joaterik ez badute, alkate-udalburuari jakinarazi beharko diotela, behar besteko aurrerapenaz.

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut

Oñatin, 2022eko apirilaren 25ean

